



ZALDIBIAKO
UDALA



Espedientea: Bandoak

Espedientearen gaia: -Udal eraikinaren eraiste lanak-

Titularra: ZALDIBIAKO UDALA

JAKINARAZPEN OHARRA: IBILGAILUENTZAKO BIDE MOZKETA SANTA FE KALEAN ABUZTUAREN 2tik 6ra

Udal eraikin zaharra eraisteko lanak hasiko dira abuztuaren 2an. Lan hauek burutzeko hainbat neurri hartuko dira lanek irauten duten bitartean.

TRAFIKO MURRIZKETAK: Ibilgailuen joan etorria etengo da Santa Fe kalean.

EGUNAK: ABUZTUAK 2tik 6ra. ASTELEHENETIK OSTIRALERA

ORDUA: Abuztuaren 2ko goizeko 7:00etatik aurrera

EREMUA: SANTA FE KALEA 21etik (Itoitz etxetik) SANTA FE KALEA 45ra (Mariaundi)

APARKALEKU MURRIZKETAK: Ezingo da ibilgailurik aparkatu ondorengo eremuan

EGUNAK: ABUZTUAK 2tik 6ra. ASTELEHENETIK OSTIRALERA

ORDUA: Abuztuaren 2ko goizeko 7:00etatik aurrera

EREMUA: SANTA FE KALEA 21etik (Itoitz etxetik) SANTA FE KALEA 29ra (Estanko)

GARRAIO PUBLIKOA: Zehazturiko egunetan, autobusak Arreseneko geltokira iritsi eta bertatik aterako dira.

EREMU PUBLIKOA: Lanak agintzen duten eran segurtasun eremu bat finkatuko da udal eraikin zaharraren bueltan. Herritarrei eremu hau errespetatzeko eskaera luzatzen dizuegu.

KOMERTZIOAK eta TERRAZAK: Komertzioak eguneroko jarduna normaltasunez burutu ahalko dute. Plaza eremuko tabernetako terraza zerbitzuak aldaketak izango ditu, lanek behartutako segurtasun neurrien baitan. Eraikina eraisten hasten diren unean ezingo da zehaztuko den segurtasun eremuan inor egon.



ZALDIBIAKO

Mikel Luloaga Aranburu
ZALDIBIAKO ALKATEA JARDUNEAN

Zaldibian, 2021eko uztailaren 23an.

Sinatzailea	JARDUNEKO ALKATEA MIKEL LULOAGA ARANBURU		
Kodea	BN21/0004	Udala	ZALDIBIA
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/78/AAAA116R8.xm0j		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

